

Prototipatu azkarrari buruzko teknologiei eta hauen aplikazioari buruzko jardunaldia antolatu du Mondragon Unibertsitateak.

2011/05/10

Arrakasta izan zuen, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak antolatutako prototipatu azkarra eta hauen aplikazioari buruzko jardunaldiak; zeinetan, gaur egungo prototipatu azkarrari buruzko teknologia eta prozesuak erakutsi ziren, baita lantzen diren materialak eta sektoreak etorkizunean izango dituen joerak.

Prototipatu azkarra / Rapid Manufacturing (RM) teknologia nagusi bihurtu da hainbat sektoretako produktu pertsonalizatuak fabrikatzeko, adibidez, hortzetako edo femurreko protesiak, zapatilak, jostailuetako piezak, eta abar. Arrazoa hau da, modurik azkarrena -eta merkeena- dela 3Dn CAD aplikazio bidez sortutako diseinu baten hiru dimentsioko erreplika zehatz bat lortzeko. Horretarako, ekipamenduak eta teknologiak aurreratzeaz gain, landutako materialak nabarmen aldatu dira eta gaur egun teknologiak gai dira erretxina fotopolimerikoak, ABS erako plastiko gogorak edo bigunak -silikona adibidez-, metalak -titanioa adibidez-, altzairuak, bimetalikoak, eta abar prozesatzeko; eta baita zuraren antzeko materialak prozesatzeko ere.

Prototipatu Azkarra asko aurreratu da azken urteetan. Gaur egun, prototipo fisikoak sortzeaz gain, hauek ere egin daitezke, alegia, hasi pieza funtzionalak serie txikitan prezio onetan zehaztasunez egitetik eta serie ertain edo handietarako tresna eta moldeak zuzenean fabrikatzera bitarte (fundizioa, plastikozko injekzioa, estanpazioa, eta abar). Beste aplikazio nagusietako bat, produktu errealean atzeranzko ingeniartzaren ondorio diren produktu birtualak material bihurtzea da, eta 3D digitalizazioa urrats bat da hura lortzeko.

Jardunaldian honako hauek parte hartu zuten: Felip Esteve, Rapid Manufacturing Espainiako Elkarteko zuzendaria (ASERM); Mari Carmen Vicente, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioko; Joan Guasch, ASCAMM Fundaziokoa (diseinu eta produkzio industrialerako zentro teknologikoa) eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko irakasle eta ikerlari diren Lander Galdos eta Done Ugarte.



Prototipatu azkarrari buruzko teknologien Jardunaldia